

KALANAK

Guk sortutako enpresaren oinarri nagusia bezeroak dira eta izango dira. Beraz ezinbestekoa izango da Urretxu-Zumarragako dendei gure berri ematea. Herriko dendek gure webgunean informazio guztia eskuragarri izango dute. Horrez gain gure telefono zenbakira edota gure sare sozialetatik gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute. Baina kanal mota hauek mugikor edo halako gailu elektroniko batekin egingo direnez, aurrez -aurre komunikatzeko izango dugun aukera bakarria banaketaz arduratuko direnekin da.

Gure proiektua Urretxu-Zumarragako denda guztietara iritxi dadin, herriko zenbait gunetan kartelak jarriko ditugu. Azken hau egiteko zenbait kartelera daude bi herri hauetan zehar. Gainera, gure sare sozialez ere baliatuko gara (instagramez batez ere). Gure ustez gaur egun publizitatea egiteko erarik hoberena sare sozialen bidezkoa da. Gazte zein helduek erabiltzen dituzte honelakoak, beraz gure kanal nagusiak honelakoak izango liratekeelakoan gaude. Instagramen adibidez, pulikazioak zein istoriak igoko ditugu, era honetara edonork ikusteko eta gure berri izateko aukera izango du.



Bi herrietako dendek online salmentaz arituko den negozioari buruzko informazio guztia gure webgunean izango dute. Norbaitek webgunea non aurkitu ezingo balu, instagrameko biografian ere txertatuta izango dugun linkean bertan klikatuz aurkituko luke.



Bezeroren batek sare sozialik izango ez balu (ez da ohikoena baina gerta daiteke), guri jakinaraztea eskertuko genioke. Era honetara beharapenen edu eguneraketen berri WhatsApp-en bidez emango genioke. Sare sozialak ez izateaz gain WhatsApp aplikazioa komunikabide iturriztat nahiko ez balitu, telefono bidez harremanetan jartzeko aukera izango genuke.

Gure webgunea atal desberdinetan banatu behar dugu. webgunean sartzean lehendabiziko atala azalduko da eta hau izango da garrantzitsuena, izan ere, bertan herriko dendek produktuak azalduko dira. Herriarrek produktuak bilatzeko eta sailkatzeko aukera edukiko dute, hau da, denda zehatz batean begiratu al izango dute edo arropa bakarrik begiratu. Horrez gain hizkuntza aldatu al izateko atal bat egongo da eta bertan euskara edo gaztelera aukeratu alko dira. Azkenik zalantzak galdetzeko atala egongo da eta bertan gurekin harremanetan jarri daitezke.

Gure berri herritar zein denda gehiagok izan dezaten, produktuak etxe-etxe banatzean, kaxari gure marka ezarriko diogu. Hori dela eta, gure marka ikusten duen edonork gure berri izango du era batean.